AIARALDEA hemen

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena



KIROLA:
Aiaraldeko eskalada eskola bilakatu da Bitorikako kantera azken lau hamarkadetan 22-24. or

GEHIGARRI BEREZIA:
Jan, edan eta oparitzeko eskaintza zabala dago Aiaraldean

Herri txiki, pandemia handi?

AIARA 6
Luiaondoko erabilera anitzeko espazioa, diseinatze fasean
'Patxika etxean' atonduko du udalak espazioa, hainbat dirulaguntza baliatuta

AIARALDEA 10
Kantauriko Urkidetza urpatzuergoa desegitea onartu dute
PSE-EE eta EAJak alde bozkatu dute. Oposizioa, aldiz, aurka lerrokatu da

KULTURA 12-13
Irune Izquierdo, Elkar argitaletxeko liburuen azalen egile
Azalak egitearen prozesua nolakoa den azaldu du artista amurrioarrak

KULTURA 14-15
Berri Txarraken dokumentalean agertuko da Oihane Ofogo
Gazte laudioarra izango da ikus-entzunezkoaren protagonistetako bat

KULTURA 17
'Geuretik sortuak' ekimenak Artziniega izango du geltoki
Udalbiltzak antolatutako kultur-zirkuituak herria bisitatuko du

KULTURA 18
Mario Paniegoren erakusketa, Bilboko Azkuna zentroan
Publizitateak espazio publikoan duen eragina jorratu du artista amurrioarrak

RPS 101/19
GO enea
ODONTOLOGIA
Sheila González eta Iker Goikoetxea
Kalitatezko eta konfiantzazko odontologia, zugandik hurbil
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu
Araba kalea 2, Laudio • 944 200 310 • 690 341 413

erreportajea

Pandemia bat herri txikien talaiatik

Nola bizi izan dute COVID-19aren pandemia Aiaraldeko herri txikienetako bizilagunek? Galdera horren erantzunaren bila jo dugu Belandia, Menagarai edota Lendoñobeitira, bertako herritar batzuekin hitz egitera.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Mundua hankaz gora jarri du COVID-19ak eragindako pandemiak. Zeharo aldatu ditu gizartearen bizitza erritmoak, lehentasunak eta baita perspektibak ere. Itxialdiko estutasunak herri txikiak eta landa-eremua jarri ditu jomugan: etxe handiak, eta aire freskoa arnastu ahal izateko espazio zabalak. Imajinario kolektiboan ez bezala, herri txikietako bizitza ez da beti xamurra, lana eta dedikazioa exijitzen ditu nahitaez: komunitatean bizi eta komunitatean aurrera egiteko konpromisoa.

Nola bizi izan dute pandemia Aiaraldeko herri txikietako bizilagunek?

Ukaezina da COVID-19ak gutxiago eragin duela landa-eremuan. Horrela azaldu du Gentza Alamillo Aiarako alkateak: "Biztanle gutxiagorekin, eta harreman sozialak urriagoak izanda, kutsatzeko arriskua ere askoz murritzagoa izan da". Datuek hori baieztatzen dute; Aiaran Luiaondon eta Arespalditzan bizi izan dituzte koronabirus kasu gehien, udalerriko nukleo populatuenetan, hain zuzen. Herri txikietan egon dira kasuak ere, baina oso anekdotikoa izan da birusaren eragina. Menagaraiko mojen eskolan piztu zen fokoa izan da Aiarako herri txikietan gaixotasunarekin lotutako egoerarik nabarmenena.

Pandemiak, ordea, osasun arlotik harago, bizitzako esparru ia guztiak irauli ditu modu batean ala bestean. Pandemiaren korronte arroaK aurretik eraman du mundu globalizatu hau eta, noski, landa eremua ez da horretatik libre gelditu. Uraren indarrak irentsi ez dituen arren, oinak busti behar izan dituzte bertako biztanleek.

Bizitzak aurrera

Lendoñobeitiko gainerako bizilagunak bezala, martxoko konfinamenduak ezustean harrapatu zuen Crescencio Irabien: "Mundua zeharo gelditu zela zirudien, baina baserriko lanek aurrera egin behar zuten bai ala bai", azaldu du. Lan horiek aurrera egiteko motozerrako pieza berri bat behar zuen ezinbestean. Laudiora arte bidaiatu zuen konfinamendua hasi berritan, motozerrarentzako pieza hori eskuratzeko. Bidaia "beldurrez" bizi izan zutela dio, momentuko ziurgabetasunaren eraginez.

Motozerraren anekdota horregatik ez balitz, egunerokoak "berdin" jarraitu zuen Lendoñobeitin. Herriko mugaz gaindi mundu guztia etxeetan sartuta zegoen bitartean, ortuan lanean, abereak zaintzen edota baserria konpontzen zebilen 'Crescen'; otsailean edo urtarrilean bezala, bakarrik.

COVID-19ak gutxiago eragin du herri txikietan, datuek erakusten dutenaren arabera

Bakardadearen gaitza

"Herri txikietako harreman sozialak ohikoan eskasak badira, are eskasagoak bihurtu dira martxotik hona", azaldu du Crescenek. Izan ere, kutsatze arriskua oso baxua izan arren, beldurra bai nagusitu zela Lendoñobeitiko 30 biztanleen artean. Ez da Crescenen kasua, baina badira hilabetean inorekin hitz egin ez zuten auzokideak.

Lendoñobeitin "distantzia soziala" praktika normala den arren, badira harremanetarako espazioak, baina pandemiak horiek ere ezabatu egin ditu. Aur-

ten ez dute abuztuaren 3ko San Esteban eguna ospatu, herrikide guztiak elkartzeko zuten urteko egun bakanetakoa. Irabienek uste du aurten San Esteban eguna ez ospatzeak eragina izango duela etorkizuneko jaietan, azken urtetatik hona gainbeheran dauden jaiak baitira.

Belandian ere ez dituzte herriko jaiak ospatu. Administrazio Batzarrak ahaleginak egin bazituen ere, pandemiaren bigarren olatuak harrapatu zituela azaldu du Noemi Llorente batzarreko kideak.

Pandemiak, ordea, balio izan die herritarren arteko harremanak zeinen funtsezkoak diren ulertzeko: "Askok Belandiatik kanpo ditugu gure zirkulu sozialak; harreman horiek eten egin ziren martxoan, eta auzokideak gehiago elkar ezagutzen hasi ginen, herritar guztiak biltzeko afari edo jai txiki bat antolatzeko gogoak dituen inor bada ere".

Sarearen indarra

Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sareko lehendakaria eta Menagaraiko Emakume Taldeko kidea da Leonor Sastre. Ondo daki zeinen garrantzitsua den landa ingurunean bakardadeari aurre egiteko batu eta antolatzea.

"Herri txikietako harreman sozialak ohikoan eskasak badira, are eskasagoak bihurtu dira martxotik hona"

Orotariko ekintzak antolatzen dituzte Menagaraiko emakumeek elkarren artean saretzeko. Zuatza, Kexaa edota Errestes herrietatik ere bertaratzen dira emakumeak. Aurten, ordea, ekintza guztiak bertan behera utzi behar izan dituzte. Eliza atarian ikus dezakete elkar bakarrik.

Teknologia berrietara ohitu behar izan dira elkarren berri izateko: "Whatsapp bidez agurtzen gara egunero, modu telematikoan bada ere, sarearen berotasuna transmititzeko".

Internet bidez harremanak mantentzea ez da lan xamurra Aiaraldeko herri txikietan: "Aldundiak kable bidezko konexioa bermatu zuen duela urte gutxi herri gehienetan, baina oraindik oso txarra da, askotan borrokatu behar izan dut telefono konpainiarekin" azaldu du Sastrek.

Internet bidez harremanak mantentzea ez da lan xamurra Aiaraldeko herri txikietan, konexio arazoak direla eta

Baserrian atsedenik ez

Lana eta bizitza estuki lotuta daude herri txikietan, lurrari lotuak eta lurrari emanak bizi dira Aiaraldeko etxaldeetako auzokideak. Luis Zaballa abeltzaina da, ardi azienda bat du bere arduraepean. Konfinamendua lan zama ikaragarriarekin eta gaixotutako senideekin hasi zuen. Abeltzaintza-ustiategia amaren eta osabaren baserrian dauka, eta alarma-egoera ezarri zen egunean bertan, arreba sukarrarekin hasi zen. Menagaraiko eskolan irakasle da Zaballaren arreba, amak usaimena galdu zuen eta Luisek berak ondoeza eta eztarriko mina izan zuen. Frogarik ez zieten egin COVID-19a zela ziurtatzeko.

Ziurgabetasun egoera horretan ere, Zaballak ezin zion ardiekin lan egiteari uko egin. Berak bakarrik hartu behar izan zuen aziendaren ardura: "Lan handiko sasoia da martxoa, erditze kanpaina bukatzear harrapatu gintuen konfinamenduak, ardiak egunero jetzi behar dira, eta gainontzeko animaliak zaindu...".

Aiaraldeko hainbat herri txikitako bizilegunek pandemia nola bizi zian duten kontatu dute. **Aiaraldea.eus**

erreportajea

Errealitate ugari topatu daitezke herri txikietako bizilagunen artean. **Aiaraldea.eus**

Virginia Ortiz de Barron, Luis Zaballaren emaztea, abeltzainen kooperatibako administrazio lanaz arduratzen da; kooperatibaren bidez ardien esnea saldu egiten dute Idiazabal gazta ekoizteko. Lana ere demasa izan du, aurretik zituen bilera presentzialak modu telematikoan egin behar izan ditu, Menagarai bezalako herri batean Internet konexioak dituen gabezia guztiekin.

Kooperatibari esker lortu dute esnearen ohiko salmenta prezioa mantentzea, baina ezagutzen dituzte kontrako egoera bizi izan duten ekoizleak: "Handizkako zenbait merkatari egoeraz baliatu dira esnea askoz prezio merkeagoan erosteko; azkenean, kate-begirik ahulenak ordaintzen du egoera garestien".

Baserrietako lanek ez dute etenik izan pandemian eta, kasu batzuetan, ugaritu ere egin dira, konfinamenduak sortutako zailtasunak medio

Carlos Cuadrak 82 urte ditu eta Belandiako auzokidea da. Ez konfinamenduak ezta pandemiak ere ez ditu bere eguneroko zereginak eten. Goizean goiz esnatzen da egunero, ardiren batek erditu duen begiratzen du aurrena, behiei jaten eman eta gaixorik dauden animaliak zaindu.

Egunak aurrera egin ahala, baserriaren eta inguruko larreen mantenuan murgiltzen da: hesiak jarri, ateak konpondu, belarra moztu... Traktorean igota pasatzen du eguna gaueko bederatziak jo arte.

Ordu horretan Amurrioko lagunak bisitatzeko tartea hartuko luke pandemiarik ez balego, faltan botatzen ditu aisialdi une horiek. Horrela bizi da taxista lana utzi zuenetik. Opor egunik ez da landa inguruan.

Osasun langileak

Kutsatzeko arrisku gutxi egoteak ez du esan nahi birusaren arriskurik ez dagoenik, ezta herri txikietako bizilagunek arreta medikoa behar ez dutenik ere. Horri erantzuteko dago Jesus Valle. Landa inguruko erizaina da eta Urduñako osasun-zentroan egiten du lan. Koronabirus kasu gutxi ikusi ditu Urduña inguruko herrixketan eta herrian sortu zen laguntza-sare zabala goraipatu du: "Auzokideak oso ondo antolatu dira, norbait isolatu behar izan denean ez zaio arretarik falta izan".

Muturreko kasu bakarra du gogoan: "Baserri bateko kide guztiak kutsatzen joan ziren, eta familiak kanpotik ez zien inolako laguntzarik eskaini". Baserriko jendea "gogorra" dela azpimarratu du Vallek: "Pandemian zehar auzokideek beraien osasunaren gaineko arreta albo batera ez uztea izan da gure kezka nagusia" dio, "koronabirusaz gain, gainerako gaixotasunek berdin eragiten jarraitu dute, pazienteei hori ulertarazten tematu gara".

Pazienteak informatuta jarraitzeko helburuarekin bere sare sozialetan azalpen bideoak grabatu ditu Jesus Vallek eta Urduñako Udalaren laguntzari esker jende askorengana iristea lortu dute.

Bi munduren arteko talka

Maiatzak konfinamendu neurrien malgutasuna ekarri zuen, eta Aiaraldeko herri txikietako bizilagun guztiek sumatu dute herri handietako bisitarien etorrera. "Askok pentsatzen dute landa-eremua hirietako aisialdirako zonaldea dela, ez dute ulertzen dinamika propioak eta bere erritmoak dituen komunitate oso bat bizi dela" dio Luis Zaballak. Dozenaka hiritar pasa dira bere etxe aurretik azken hilabeteetan, eta batekin baino gehiagorekin izan du talka: "Gaztainondo batzuk ditugu etxetik gertu dagoen lursail batean, hiritik etorritako batzuk aurkitu nituen saski bete gaztaina jasotzen. Gaztaina batzuk edo sagar bat hartzea ulergarria da, bi saski ez. Lursaila gurea zela azaldu nien, eta nirekin eztabaidan hasi ziren, eskriturak erakusteko esan zidaten".

Jende askok landa inguruan

erreportajea

nola jokatu behar den ez dakiela uste du Zaballak: “Guk ondo dakigu Bilboko kale nagusian ezin garela zabalik ikusten dugun lehenengo atarian sartu, ez dut ulertzen zergatik den hain zaila jokamolde hori bera hona ekartzea”.

Komunitatean bizitzea

Urte luzez ahaztuak izan direla sentitzen dute bertako bizilagunek. “Egia da guk oso ondo bizi izan dugula pandemia orokorrean, ez dugu hiri bateko etxebizitza txiki bateko estutasuna jasan”, dio Pedro Fonte Belandiako Administrazio Batzarreko lehendakariak, “baina urte askoren ostean, herri txikietakoak etxe handiak direlako gogoratu dira soilik gutaz, baserri handiak eta larre zabalak baino askoz gehiago gara”. “Lehen sektorea existitzen ez dela uste du jende askok” kexu da Luis Zaballa, “ez dute ulertzen herri txikietako ekoizleok bizitza modernoaren zenbat gauza eusten ditugula”. Herri txiki batean bizitzeak komunitate baten eraikuntza eta zaintza etengabea eskatzen duela nabarmendu dute: “Beti dago egin beharreko lanen bat ez bada zure etxaldean, aldamenekoan edo bestela kontzejuan, herriko kontu desberdinak antolatzen: azpiegiturak konpondu, fakturak ordaindu...” azaldu du Noemi Llorentek.

Izan ere, antolakuntza komunitario handi batek markatzen du Aiaraldeko herrixken egunerokoa, COVID-19ak modu batean edo bestean baldintzatu duen antolakuntza. Eliseo Gutierrezek Lendoñobeitiko kontzejuan parte hartzen du familiako baserriaren ordezkari bezala, ohikoan bi hilabetean behin elkartzen dira; aurten bi bilera egin dituzte bakarrik, eta auzokide gutxiagok hartu dute parte: “Herriari dagozkion erabakiak hartzeko gaitasuna daukagu, ezin dugu auzokideen inplikazioa galdu, bestela beste nonbaiten hartuko dira guri dagozkigun erabakiak”.

Hirietatik herrietara “migrazio” bat gertatzen ari den honetan herri txikiak ezin direla “loleku” huts izan defendatu dute Aiarako bizilagunek: “Herri txikien etorkizuna ez da hortik igarotzen, herriko antolaketan inplikazioa behar dugu, lehen sektorean inplikazioa behar dugu. Hona bizitzera datorren jendeak ez badu hemen inplikatzeko intentziorik, herri handiago baten auzo 'esklusibo' bihurtuko gara, ez komunitatean bizi eta aurrera egiten duen herri bat”.

herriz herri

Amurrio

Amurrioko Gaztetxeko makinaria guztia jarri dute martxan lan egunari esker

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Lan eguna egin zuten iragan astean Amurrioko Gazte Asanbladako kideek gaztetxeko hainbat espazio atontzeko helburuarekin.

Ikasgela proiektua izan zen lan eguneko ardatz nagusietako bat. Amurrion ikasleentzako dagoen baliabide faltaren aurrean hilabeteak daramatzate lanean Gazte Asanbladak eta Ikama ikasle antolakundeak, herriko ikasleentzako espazio bat antolatzen.

Entsegu lokala ere prestatu dute, herriko musikariek erabili dezaten. Gainera, gitarra tailerrak eskainiko dituzte gaztetxean, igandero 12:00etan.

Amurrioko Gaztetxeak proposamen eta erabilera berriei ere zabaldu nahi dizkio ateak. Bertan edozein proiektu aurrera atera nahi duen gazte orori luzatu diote asanbladarekin harremanetan jartzeko deia.

Ikasgela atondu dute, besteak beste. **Amurrioko Gazte Asanblada**

Aiara

Luiaondoko erabilera anitzeko espazioa eraikitzeko proiektu teknikoaren lehiaketa, abian

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lehiaketa publikora atera du Aiarako Udalak Luiaondoko erabilera anitzeko espazioa atontzeko proiektu teknikoa. 'Patxika etxean' egingo dituzte lanak, lehen eta bigarren solairuan. Modu horretan, herritarrek hainbat jarduera egiteko baliatu ahalko dute espazioa.

20.328 euro bideratuko ditu tokiko erakundeak proiektuaren erredakziora, baina hainbat diru-laguntza izango ditu horretarako. Zeregin horretarako hautatuko duten enpresak bi hilabete izango ditu egitasmoa burutzeko.

'Patxika etxean' atondu nahi dute erabilera anitzeko espazioa. **Aiarako Udala**

Artziniega

Kultura Etxea konponduko dute, ia milioi bat euroko inbertsioa eginda

Bigarren solairua gehitu nahi diote azpiegiturari. **Artziniegako Udala**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Planaren baitan, Kultura Etxea konpontzeko diru-laguntza eskuratu du Artziniegako Udalak. Joseba Vivanco alkateak azaldu duenez, legealdi honetan gauzatu nahi dituzte lanak.

"Eginkizun garrantzitsu honetarako aurrekontua ia milioi bat eurokoa da", zehaztu du gobernuburuak. Helburua, eraikina bera atontzea da, "probetxu hobea ateratzeko". Horretarako, bigarren solairua gehitu nahi diote azpiegiturari, igogailua kokatu, berogailu sistemarekin hornitu eta egungo espazioak berrantolatu. "Ekinbide inportantea da Kultura Etxekoa, Artziniegak dituen beharrei erantzuteko", azpimarratu du Vivancok.

Udalak ez du Gabonetako argirik jarriko aurten

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Artziniegako Udalak jakinarazi du aurten ez dutela Gabonetako argirik jarriko udalerrian, gastu hori kentzea erabaki duelako. 2020. urtea "zaila" izaten ari dela azaldu du tokiko erakundeak, "zentzu guztietan". "Bakoitzak, neurri handiagoan edo txikiagoan jasan ditu osasun-pandemia honen ondorio kaltegarriak eta honek eragindako krisi ekonomiko eta sozial gogorrak", aipatu dute oharrean.

Udaleko kideek azaldu dute "gerrikoa estutzea eta aurreikusitako gastuak murriztea" egokitu zaiela. "Urtearen erdialdean, udal talde guztiek aho batez onartu zuten gastuen partida jakin batzuk 'izoztea', gastu-aurreikuspenak ez ukitzea, diru-sarreren beherakadari aurre egiteko beharragatik". Gastu horietako bat da Gabonetako argiztapenarena, zehaztu dutenez.

Herritarrei deia

Hala ere, tokiko erakundeak iragarri du argiztapenera dirurik ez bideratzeak ez duela esan nahi Gabonetako argirik egongo ez denik.

Udal eraikinetako balkoietan argiak jarriko dituzte, eta herritarrei luzatu diete etxeetan berdina egitera. "Nork bere kalea argiz apaindu dezala, argiztapen hori bazter guztietara irits dadin. Herria egiteko modu bat ere izan dadila, hemen jarraitzen dugula esatekoa. Gabonetan, azken batean, argia, pandemia honen tunelaren amaierako argi hori, zeu izatea, guztiok izan gaitezen".

herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Iberlandako taberna ustiatzeko pertsonen bila ari da udala

400 euro ordaindu beharko dituzte hilero taberna ustiatzeagatik. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iberlandako taberna kudeatu eta ustiatzeko lehiaketa publikoa abiatu du Arrankudiaga eta Zolloko Udalak. Kontratuaren esleipena eskuratzen dutenek 8 urtez izango dute eraikina baliatzeko aukera, hilero 400 euro ordainduta.

Tokiko erakundeak azaldu du udalerrian erroldatutako pertsonek lehentasuna izango dutela lehiaketan. Abenduaren 18an -ostirala- izango da eskaintzak aurkezteko azken eguna. Udaletxean aurkeztu beharko dira, 8:00etatik 15:00etara.

Kontratazio prozesuaren oinarriak eta informazio gehigarria lortzeko ondorengo bide hauetako bat baliatu daiteke: udal bulegoak, 94 648 17 12 telefono zenbakia edo udala.arrankudiaga@bizkaia.org helbide elektronikoa.

40.033,25 euro baliatu ditu udalak aurten auzoetako bideak konpontzeko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurten guztira 40.033,25 euro baliatu ditu Arrankudiaga eta Zolloko Udalak hainbat auzo-bide konpontzeko. Tokiko erakundearen asmoa da Zubitxuetako bidean eta Ormetxe bidean zuloak kendu eta bide-zoruak asfaltatzea eta hormigoitzea. 24.660,4 euroko diru-laguntza jaso du horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Sailaren partetik.

Bideetako baten irudia.

Orozko

Herritarren laguntza eskatu dute “Jentilzulo bizirik mantentzeko”

Bilera informatiboa egin zuten iragan astean, egoera azaltzeko. **Jentilzulo**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Askorentzat bezala, urte gorabeheratsua izan da Jentilzuloko Kulturgunearentzat ere. Herriko jaiak ospatu ez izanak egoera ekonomiko larrian utzi du espazioa, bertako irabazi guztiak lokalaren gastuei aurre egiteko bideratzen baitzituzten. Oharra kaleratu dute Orozkoko gune horretako kideek, bizi duten egoera salatzeko.

Udalaren erantzuna

Ikasturte berria abiatzearekin batera, “segurtasun-neurri guztiak errespetatuz”, ekintzak berrartzeko apustua egin dute kulturgunean. Udalak, ordea, ez die horretarako baimenik eman, espazioa “gazte lonja” bat dela argudiatuta. Eusko Jaurlaritzak gazte lokalak ixtea ezarri zuen COVID-19ari aurre egiteko neurrien artean. Udaletik "osasunlarrialdi egoera" dagoela nabarmendu dute, eta gaineratu dute "orozkoar guztien erantzukizunean konfiantza" dutela, "koronabirusa herrian ez zabaltzeko".

Jentiluzoko kideek, aldiz, kulturgunea gazte lonja bat ez dela defendatu dute: “Jentilzulo herriarena da, auzolana da, euskara da, kultura da, feminismoa da”.

“Egoera larria” dela azpimarratu eta herritar guztien bultzada eskatu dute espazioa bizirik mantentzeko. Hala, iragan astean asanblada informatiboa egin zuten Donibane Aretoan. Bertan, kulturgunearen egoera zein den azaldu zuten, aurrera begirako urratsak aurkeztearekin batera.

Jentilzulok bost urte

2015ean zabaldu zituen ateak Orozkoko Jentilzulo Kulturguneak, udal gobernuak gazte asanbladak kudeatzen zuen Gaztetxea zigilatu eta itxi ostean. Bost urte hauetan, autogestioa oinarri, ekintza eta jarduera ugari antolatu dituzte bertan.

herriz herri

Laudio

Laudioko saltoki txikiek online denda bat jarri dute martxan

Iragan astean aurkeztu zuten plataforma. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

APILLek plataforma digital berria jarri du martxan eta oraingoz 20 saltokiren produktuak erosi daitezke Internet bidez

Laudioko saltoki txikien 'marketplace-a' aurkeztu du APILLek Rural Kutxarekin lankidetzan. Plataforma digital berriak herriko komertzioetako produktuak Internet bidez erosteko aukera eskainiko du. Sarearen bidezko erosketek gorakada handia bizi izan dute azken hilabeteetan. Gorakada hori saltoki txikientzako "mehatxu bat dela" azaldu dute APILLeko ordezkariek, eta "martxan jarritako tresna berriak" mehatxu hori Laudioko saltokientzako aukera berri bihurtu nahi du.

'Zure merkataritza gara' izena du plataforma digitalak, eta oraingoz Laudioko 20 saltokiren produktuak daude bertan eskuragarri, baina hurrengo asteetan komertzio gehiago batzea aurreikusten dute. Egitasmora batu nahi den saltoki orok APILLekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Rural Kutxak eskaini ditu baliabide teknikoak. Plataformak "erabilera erraza eta intuitiboa" duela nabarmendu dute, eta baita ordainketa sistema segurua dela ere. Bezeroak, produktuak erosteko orduan, komertzioarekin adostuko du hauek nola jaso.

Ander Añibarrok ordezkatuko du Josune Irabien EUDELen

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Ander Añibarro Maestre Laudioko alkateak ordezkatuko du Josune Irabien Marigorta Amurrioko gobernuburu oihak EUDELen utzitako hutsunea. Izan ere, Josune Irabienek azaroan hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Tokiko Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendari kargua.

15 alkatek osatzen dute EUDELeko gobernu organoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa ordezkatzeko. EUDELek nabarmendu duenez, Ander Añibarrok "Batzorde Eragileko kide gisa, urteko azken bilkura telematikoan hartu du parte, elkarteburuarekin, bi elkarteburuordeekin eta gainerako alkateekin batera. Gaurtik aurrera, Laudioko alkateak funtzio berriak hartuko ditu udal-autonomiaren eta tokiko interesen defentsan".

Herritarrak omenduko dituzte Altzarrate Sarien V. edizioan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Kirol eta kultura arloan ekarpena egin duten Laudioko eragile eta norbanakoei aitortza egitea du helburu Altzarrate Peñak urtero antolatutako sari banaketak. Aurtengoa V. edizioa dute, eta antolatzaileek saridun bakarra egotea erabaki dute: Laudioko herria.

Pandemia egoerak munduko bizitza kulturala, soziala eta kirol esparrukoa kolpatu dituela azaldu dute Altzarrateko kideek: "Horrek udalerri bezala galduak genituen balio batzuk berreskuratzera eraman gaitu".

"Laudioko herriari bere osotasunean" aitortza egin nahi diote aurtengo ekitaldian. Horregatik, sari bakarrean bildu dituzte kategoria guztiak.

Sari banaketa

Ostiralean egingo dute ekimena udaletxeko udalbatza aretoan, 18:00etan. Alkateari emango diote saria "laudioar guztien ordezkari bezala", aurreratu dutenez.

Sei udaltzain eta bi patruila auto berri ditu udalak

Iragan astean aurkeztu zituzten auto berriak. **Laudioko Udala**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Sei udaltzain berri sartu dira Laudioko Udalean. "Kontratazio berri horiek udal-langileen erretiroek sortutako lanpostu hutsak beteko dituzte", azaldu du tokiko erakundeak, "agente horiek guztiak udaleko funtzionarioak izango dira, Arkauteko Polizia Ikastegian prestakuntza amaitu ondoren".

Horrez gain, udalak nabarmendu du polizietako hiru emakumeak direla, eta, modu horretan, "parekidetasunean aurrerapausoak" eman dituztela.

Auto berriak

Lur orotako bi auto berri ere erosi dituzte polizientzat, ordura arte erabiltzen zituzten bi ibilgailu zahar ordezkatzeko. 94.028,25 euroko inbertsioa egin dute guztira. Modu horretan, "udaltzaingo eredu berria" indarrean jartzea da tokiko erakundearen asmoa, "hurbilagoa, eraginkorragoa eta modernoagoa".Gainera, Udaltzaingoaren azpiegiturak berritzeko asmoa ere badute.

herriz herri

Okondo

Andiobe errekaren ibaiertza zaharberritu dute

Gabioi hormak altxatu dituzte Andiobe errekaren ertzean. **URA**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Herrerias ibaira isurtzen ditu urak Okondoko Untzabetxi auzotik igarotzen den Andiobe errekak. Duela hilabete batzuk lur mugimendu batek kolokan jarri zuen errekaren eta auzoko etxebizitza baten artean kokatutako hormigoizko plataformaren egonkortasuna, errekaren ibilgua buxatzearekin batera.

URA-Uraren Euskal Agentziak lehengoratze lanak burutu ditu Andiobe errekaren ibilguan, inguruari egonkortasuna emateko berriro. Zehazki, gabioi horma bat altxatu dute horretarako, eta inklinazioa kendu diote etxebizitzaren eta errekaren arteko ezpondari.

Zaharberritze lanek 35.500 euroko kostua izan dute, eta Eskualde Garapenerako Europako funtsen diru-laguntza jaso dute horri aurre egiteko.

Izoria

Izoriako gaztandegian aurkeztu dituzte ‘Euskal Gaztak’ proiektuko sei produktu berri

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Izoriako gaztandegian egon ziren astelehenean Arantxa Tapia Ekonomia Garapen Sailburua eta Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordea, 'Euskal Gaztak' proiektua aurkezten.

Eusko Label ziurtagiria duten ahuntz, ardi eta behi esnearekin egindako sei gazta aurkeztu dituzte, Izorian bertan ekoiztutako bat tartean.

Sei barietate berri horiek Idiazabal Jatorrizko Izendapenak babestutako produktuen eskaintza zabaltzera datoz. Gaztek “etiketa propioa izango dute merkatuan, identifikagarria izan dadin kontsumitzaileentzat”, azaldu zuen Bittor Orozek sailburuordeak.

Arantxa Tapiaren hitzetan, “baserrietako antzinako gaztagintza berreskuratzea eta esne sektorearen lehiakortasuna handitzea” dira ekimenaren xedeak.

‘Otzara’ da Aiaraldeko Izoria gaztandegian ekoiztutako gaztaren izena. Ardi esnearekin eginiko “formatu txiki eta dotoreko” produktua da, “mendebaldeko amama gaztaginen lekuko”.

Aiaraldea

Aiaraldeko ‘Berbalagun’ egitasmorako dinamizatzaile bila dabil AEK

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaraldeko Berbalagun egitasmoa dinamizatzeko langile bila dabil AEK. Astean 35 lan-orduko jarduna eskaintzen dute, urtarrilaren 7an hasi eta, gutxienez, hiru hilabeteko iraupenarekin.

Goi edo erdi mailako ikasketak eta C1 edo baliokidea den euskara titulu bat izatea eskatzen dute. Halaber, eskualdearen eta egitasmoaren ezagutza, prestasuna eta gida baimena izatea ere baloratuko dituzte.

Interesa duen orok abenduaren 21era arte bidali dezake kurrikuluma parktikatu@aek.eus helbide elektronikora, “Aiaraldeko dinamizatzailea” erreferentzia bezala jarrita.

'Berbalagun' egitasmoa

Aiaraldeko 'Berbalagun' egitasmoak “euskararen erabilera bultzatzea eta indartzea” du helburu. Horretarako, pertsona euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak jartzen ditu harremanetan, hainbat motatako jardueren bidez, euskara praktikatu eta bizitzeko espazioak sortuz.

herriz herri

Aiaraldea

Duela astebete egin zen Kantauriko Urkidetzaren ezohiko batzarra eta hau desegitea bozkatu zen, EAJ eta PSE alderdien aldeko botoarekin. 'Urbide' partzuergora batuko dira Laudio, Aiara eta Amurrio. Artziniegak etorkizunean urak nola kudeatu ebatzi behar du oraindik.

Kantauriko Urkidetza ur-partzuergoa desegitea ebatzi dute

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Maroñoko urtegia kudeatzen du Kantauriko Urkidetzak, besteak beste. **Kantauriko Urkidetza**

Kantauriko Urkidetza ur-partzuergoa desegitearen alde egin zen iragan osteguneko ezohiko batzarrean. EAJ eta PSE alderdiek osatutako gehiengoak erakundea desegitearen alde jo zuen, EH Bildu eta Omniaren aurkakotasunarekin.

Bozketa

Artziniegako Udalbatzak eskatu bezala, desegiteko erabakia hartzeko sei hilabeteko atzerapena bozkatu zen lehenengo, baina proposamenak ez zuen aurrera jarraitzeko babes nahikoa izan.

Bigarren bozketa urkidetzaren etorkizunaren gaineko erabakiarena izan zen. Batzarraren gehiengoa partzuergoaren disoluzioaren alde azaldu zen, EAJ eta PSEren babesaren eta Aiarako administrazio batzarren aldeko boto batekin.

Aiarako 20 administrazio batzarrek parte hartzen dute partzuergoan, eta bi bozkek ordezkatzen dute euren hitza. 15 administrazio batzarrek disoluzioaren alde egin zuten eta beste bostek, Artziniegak bezala, denbora gehiago eskatu zuten erabakia aztertzeko.

Hori dela eta, aldeko boto bat eta abstentzioa aurkeztu zituzten atzo.Amurrioko Administrazio batzarren botoaren norantza abstentzioaren aldekoa izan zen, Amurrioko lau administrazio batzarren arteko iritzi desberdintasuna islatzeko.

Artziniegako txosten juridikoa

Artziniegako Udalak txosten juridikoa aurkeztu zuen batzarraren hasieran, partzuergoa desegiteko jarraitutako prozedura zalantzan jartzen zuena. Gobernu batzordearen gehiengoak, ordea, ez zuen txostena onartu.

Joseba Vivanco Artziniegako alkateak salatu du ez zitzaiela "planteatutako zalantzei" erantzunik eman: "Ez digute txosten juridikoaren aurkako argudiorik eman, ezta desegite prozesuak hain tarte laburrean ebatzi behar izanaren inguruko azalpenik ere".

Alkate jeltzaleek, aldiz, begi onez hartu dute Arabako partzuergora igarotzea, Diputazioaren babesak ez duelako tasen igoerarik ekarriko eta eskualdeko araztegi berrien berme teknikoak ziurtatuko dituelako.

Desegite prozesua abian

Gauzak horrela, amaierara heldu da 1999an sortutako CAKU ur-partzuergoaren ibilbidea. Behin betiko desegiteko prozesua hasiko da orain, eta urtebeteko iraupena izan dezake.

Aiara, Laudio eta Amurrioko Udalak Arabako Foru Aldundiak sustatutako Urbide partzuergora batuko dira, udalbatzek aldaketari argi berdea eman baitiote dagoeneko.

Erabaki berdinari aurre egin beharko diote ere Administrazio Batzarrek, hauek ere eskudunak baitira ur kudeaketan.

Artziniegako Udalak desegitearen aurkako txosten juridikoa aurkeztu zuen, baina ez zen onartu

Urbideren gaineko zalantza asko airean daude oraindik, ordea. Gasteizko urak kudeatzen dituen AMVISA enpresa Aldundira batuko den edo ez jakin behar da oraindik.

Joseba Vivancok jakinarazi duenez, Artziniegako Udalak hilabete batzuk hartuko ditu herriko ur-kudeaketaren etorkizuna ebazteko: "Eztabaida zabaldu nahi dugu, herriko urekin zer egin erabakitzeko".

herriz herri

Orozko

5 milioi euroko aurrekontua onartu du udalak

Asteartean egin zuten Udal Osoko Bilkura. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2021erako aurrekontua onartu zuten iragan asteartean Orozkoko Udal Osoko Bilkuran. 5.091.935 eurokoa izango da, aurtengoa baino 258.135 euro gehiago.

Udaleko langileen gastua 1,07 milioi eurokoa izango da guztira, %2,4 igota. "Bestalde, 3.195.775€ onartu dira gastu arrunt gisa, 166.200€ finantza-gastu gisa eta 353.360€ diru-laguntzetarako ekarpen gisa", azaldu du tokiko erakundeak, eta aipatu du 1,38 milioi euroko zorra duela gaur egun, "1.063.015 euro Zubiaur Eraikuntzak eraisteko maileguarengatik eta 325.000 euro osasun zentro berria eraikitzeko eskatutakoagatik".

Inbertsioak

Guztira, 306.500 euro bideratuko ditu udalak datorren urtean inbertsioak egitera. Ondorengo proiektuak gauzatuko ditu, besteak beste: Babes Zibilaren zerbitzuak finantzatzea (12.700 euro), merkataritza-sektoreari laguntzak ematea (10.000 euro), landa-bideak egokitzea (91.037 euro), bideetako sastrakak kentzea (15.000 euro), gazteen lonjei buruzko proiektua gauzatzea (29.000 euro), lorategietan mantenu-lanak egitea (91.000 euro), Gizarte Etxea altzariz hornitzea (83.000 euro) eta prentsa-kabinetea kontratatzea (25.000 euro).

Adieren aldeko botoekin onartu ziren aurrekontuak. EAJk aurka bozkatu zuen eta EH Bildu abstenitu egin zen.

Aiaraldea

2010-2020 hamarkadari buruzko liburua argitaratuko du Aiaraldea Hedabideak



Datorren astean iritsiko da inprentatik liburua. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Mugarriak: Aiaraldea 2010-2020 argitalpena sortu du Aiaraldea Hedabideak, azken 10 urteetan eskualdeak bizitako bilakaeraren adierazle. Orotariko gaiak argazki eta idatzizko erreportajeetan bildu dituzte hedabideko kazetariek, eta 200 orri izango ditu guztira argitalpenak. Hala, euskararen alorrean, jendartean, sozioekonomian, kulturan, kirolean, hezkuntzan zein politikan emandako aldaketak izango ditu ardatz liburuak. Gainera, iritzi artikulu, ilustrazio eta komikiak ere edukiko ditu.

Landutako ardatzen artean daude, besteak beste, hamarkadak utzitako kultur zein kirol ekimen bereziak, erronka bitxiak, jaialdi erraldoiak, azpiegitura berriak, lan gatazkak, hezkuntzako sistema aldaketak, feminismoaren hedapena, pantailaren eragina hezkuntzan, aisialdi talde berrien sorrera eta abar. Horrez gain, gizartean errotutako fenomeno berriak ere jorratzen dira; runner edo korrikalarien moda, erosteko moduen aldaketa edota elikadura kasu.

Proiektu berezia izanik, botaldia ere mugatua izango da, 2.500 alekoa, hain zuzen. Bazkide eta zenbait instituzioen babesari esker, ordea, doakoa izango da tokiko "historia oroigarria".

Banaketa puntuak

Udalerri guztietan egongo da argitalpena eskuratzeko aukera, aleak agortu arte. Aiaraldea Ekintzen Faktoriako bazkideek etxean jasoko dute liburua. Gainontzekoek, erredakzioa@aiaraldea.eus postara bidali beharko dute mezua, eta interesdunari bere herriko banaketa puntua eta egun gogoraziko zaio. Izan ere, zenbait herritan Gabonetako ekitaldietan banatuko da alea.

Solasaldiak

Bestalde, zenbait solasaldi antolatuko ditu Aiaraldea Hedabideak Gabonetarako. Okondon, esaterako, herriko emakume kirolariak elkartuko dituzte mahai bueltan (abenduaren 28an, 18:00etan); eta Aiaran Aritz Arberas, Izaskun Bengoa eta Mikel Landa txirrindulariak (abenduaren 29an, 18:00etan). Hitzaldi guztiak streaming bidez emitituko dira Aiaraldea.eus webgunean. Aurrerantzean ere, jarduera publikoak sustatuko ditu hedabideak.

Egitasmo berezi hau Aiaraldea Hedabidearen 10. urteurrenaren baitan kokatzen da. Iaz, Aiaraldeko Kirol Urtekaria ekoitzi zuen hedabideak, baina aurten ikuspegia eta eskaintza zabaldu du komunikazio faktoriak, herritarrentzat zein euskararentzat ekimen interesgarria izan daitekeelakoan.

kultura

“Gure lana ezkutuagoa da, nahiz eta agerian egon”

IRUNE IZQUIERDO (Amurrio, 1988) LIBURUEN AZAL SORTZAILEA DA. ELKAR ARGITALETXEAN EMAN DITU AZKEN 4 URTEAK LANEAN. .

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Liburuen azalak sortzea duzu ogibide gaur egun. Nola heldu zara horraino?

Nire diseinatzaile hastapenak Arte Ederretan izan ziren. Diseinu grafikoan espezializatzean, eta karrera amaitutakoan, trebakuntza jasotzen jarraitu nuen. Orduan, praktikaldiak burutu eta berehala hasi nintzen lanean enpresa batean. Hainbat urtez leku ezberdinetan egon ostean, Elkar argitaletxeko dei bat jaso nuen, portfolioa bidali ondoren; hau ikusi eta interesa zeukatela adierazi zidaten. Handik gutxira lanean hasi nintzen Elkar-en Donostiako egoitzan.

Hau guztia orain dela lau urte gertatu zen. Hasiera batean urte baterako izango zela komentatu zidaten, baina azkenean Elkarreko diseinu departamentuko lantaldean geratu naiz.

Elkar gisako argitaletxeen lehenbiziko orriak sortzea, erantzukizun edo presio handia al da?

Egia esan, erronka bat dela esango nuke. Liburu baten azalaren atzean interpretazio asko, buruhauste dezente eta prozesu kreatibo bat daude. Batzuetan oso erraz ikusten dut liburu baten interpretazio bisual hori nola egin; baina askotan, liburuaren barrenak irudi batean egitea zaila izaten da, eta noski, zalantzaren aurrean, sormen bilerak egiten ditugu, bai gainontzeko diseinatzaileekin, eta baita editoreekin ere.

Nolakoa da liburu baten azala sortzeko prozesua?

Lehenik eta behin editoreekin hitz egiten dugu, liburuaren nondik norako guztiak ondo ezagutzeko. Nobelak direnean, gehienetan, liburua irakurtzen dut, bere tonuaz, giroaz, eta guztiaz ondo blaitzeko. Irakurtzen noan heinean, ideia ezberdinetan pentsatzen dut. Batzutan paragrafo batekin pizten zait argia; beste batzutan, aldiz, liburuan jorratzen den kontzeptu zabalago batean oinarritzen naiz.

Lehen pauso hori eginda, orduan dator gure lanaren mamia: buruan daukaguna irudikatu, marraztu, zirriborroak egin eta apunteak hartzea. Labur esanda, pentsatutako ideiak nola islatu ditzakedan ikusi behar dut, orri batean irudikatuta. Hortik abiatuta, batzuetan irudiak bilatu beharra dago; eta bestetan, guk sortzen ditugu teknika ezberdinak erabiliz (argazki muntaia, ilustrazioa, bien arteko nahasketa...).

Azkenean beti izaten ditugu 2 edo 3 zirriborro nahiko landuak, eta horietako bat hautatzen dut editore eta idazleei aurkezteko. Oniritzia daukadanean behinbetiko azala sortu behar izaten dut.

Kasu batzuetan beste ilustratzaile eta argazkilariekin egiten dugun lan, azalak estilo jakin bat behar duenean. Gure lana, hortaz, Euskal Herriko ilustratzaileekin eta argazkilariekin hitz egitea ere bada.

Idazleek buruan dutena ilustratzea dagokizu. Zertan oinarritzen zara marrazki, edo estiloren bat edo beste aukeratzeko?

Normalean guri uzten digute azaletan pentsatzen. Gero bai, editore eta egileek onespena eman behar dute, aproposa dela baieztatzeko. Kasu gutxi batzuetan, azala ez da zerotik sortu behar; azalean egon behar den irudia bidaltzen digute, eta guk egokitu edo moldatu behar dugu.

Teknikari dagokionez, nik gehien egin dudana argazki muntaiak izan dira, sortu ditudan azal gehienak literaturako nobelak izan direlako, baina gazte-nerabeentzako liburuetan, gehienak, ilustrazioak izan dira. Esan dudan bezala, batzuetan guk egiten ditugu ilustrazio horiek, baina bestetan, kanpoko egileren bati eskatzen diogu lan hori, bere estiloa zehatzagoa izan daitekeelako.

Zeintzuk dira orain arte egindako zure lanak? Zein idazle edo libururen eskaerak pasa dira zure eskuetatik?

Azkeneko lanak hauek izan dira: *Odolekoak*, Antxiñe Mendizabalen nobela; *Ibaiertzeko ipuina*, Oihane Amantegirena; Solitude, Juan Lekuerena. Itzulpenen barruan, berriz, *Lisboako setioaren historia*, Jose Saramagorena dago. Eta azkeneko-azkenekoa, Literaturako Nobel Saria irabazi zuen *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* liburua izan da, Olga Tokarczukena.

Zenbat denborako lana da portada bat egitea?

Gutxi gorabehera, 10-15 eguneko tartea behar izaten da dena burutzeko.

Azala da irakurle askoren amua. Egindako lana bistakoa izaten da beti. Aitortza ere?

Argi dago gure lana ezkutuagoa dagoela, nahiz eta ageri-agerian egon. Hala ere, benetako aitortza

idazleengandik jasotzen dugu, hau da, beraien lana azalean irudikatuta ikusten dutenean, eta guri horrela helarazten digutenean; hortxe jasotzen dugu guk gure benetako aitortza.

Zure arte proiektu propioak ere garatu izan dituzu: erakusketak, argazkiak, ilustrazioak...

Azkenaldi honetan ilustrazioa nahiko baztertuta izan dut, baina berriro eutsi diot gogotsu, eta, maiztasun gutxiagorekin egiten badut ere, gustoko dut noizean behin tartetxo bat ateratzea nire dibertimendurako. Halaber, argazkilaritza ere lantzen dut, bidaiatzen dudanean gehienbat.

Gazte diseinatzaileek kreatibitatea ogibide izateko aukerak ugariak ala murritzak dira?

Aukera dago, diseinuaren esparruan bide asko baitaude, baina egia da gehiengo zabalenak *freelance* moduan bukatzen duela. Horrek abantailak eta desabantailak ditu, argi dago, eta hasiera gogorra izan daiteke bezero zerrenda bat sortu arte. Baina lehenengo amildegi hori zeharkatu ostean, lana aberasgarria izan daiteke. Hori bai, beti berritzera behartzen zaituen lanbidea da, baina gazteek ez dute arazo hori izango.

> ***"Benetako aitortza idazleen partetik jasotzen dugu guri helarazten digutenean"***

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Azken burutapenen artean, erretratu errealista bat ilustratzea okurritu zait. Naturako hainbat elementu ere ilustratzeko asmoa daukat, kolorean eta txuri beltzean, xehetasun fin-finekin. Eta, nola ez, diseinuaren arloan luzaroan jarraitzea espero dut.





Elkar argitaletxearen hainbat libururen azalak diseinatu ditu Irune Izquierdok. **Elkar**

kultura

“Berri Txarraken kontzertuan dena eman ondoren proposatu zidaten taldearen dokumentalean parte hartzea”

OIHANE OFOGO ATXA (LAUDIO, 2000) BERRI TXARRAK TALDEAREN *DARDARA* DOKUMENTALEKO PROTAGONISTETAKO BAT DA. MARTXOAN ESTREINATUKO DUTE FILMA ZINEMA ARETOETAN.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Berri Txarrak taldearen *Dardara* filmeko protagonistetako bat zara, nolatan?

Bi aldiz hurbildu zitzaidan filmeko zuzendaria. Durangon izan zen lehena, Berri Txarraken Beude biraren barruko kontzertuan. Kontzertua amaitu ostean hurbildu zen nigana. Ni grabatzen egon zirela aipatu zidan, dokumentalerako. Zaleak grabatu nahi zituzten, itxura ezberdina duten zaleak. Nik beti dena ematen dut kontzertuetan, eta dokumentalean agertzea ondo iruditzen zitzaidan galdetu zidan. Nik baietz esan nion, kristoren ohorea zen. Beste kontzertuetan ikusiko ginela esan nion, iaz Berri Txarraken 11 kontzertutan egon nintzelako.

Bigarren aldia Tsunami Xixon jaialdian izan zen. Lagun batekin joan nintzen eta kontzertuaz asko gozatu nuen. Emanaldiaren une batean emakume bat hurbildu zitzaidan kamara batekin eta ni grabatzen hasi zen. Jaialdiko pertsona bat izango zela pentsatu nuen, ez nion kasu handirik egin. Amaitzerakoan berriz hurbildu zen nigana. Durangoko kontzertuko pertsona bera zen. Esan zidan saio osoa igaro zutela ni grabatzen eta nirekin hitz egin nahi zutela aipatu zidaten, Berri Txarrak taldeak niretzat zer esan nahi zuen jakiteko.

Nire Whatsapp zenbakia pasa nien. Laudiora etorri ziren grabatzera, bi aldiz, Lehenengoan ni eta nire familia grabatu gintuzten. Bigarrenean, aldiz, nire lagunekin egon ginen, eta pianoa jotzen ere grabatu ninduten.

Filmaren trailerrean sartu dute zuk pianoarekin jotzen duzun abestia.

Bai. Partitura bat eman zidaten pianoan jotzeko, baina grabaketa baino egun bat lehenago. Azterketa garaian nengoen eta tartetxo bat baino ez nuen izan ikasteko. Grabatzera etorri zirenean “lehen begiradan” jo nuen kanta. Pentsatzen nuen partitura nola prestatzen nuen aterako zutela, baina trailerra ikusterakoan konturatu naiz fondoko musika bezala jarri dutela. Lehenago abisatu izan banindute hobeto prestatuko nuke! Abestia kantatzeko ere eskatu zidaten, baina ezetz esan nien (barreak).

Zer moduzkoak izan ziren familiarekin eta lagunekin eginiko grabaketak?

Ondo. Dokumentalaren egileen asmoa zen zale bakoitzak Berri Txarrak nola bizi zuen erakustea. Nire aita eta amarekin grabatu ninduten taldeari buruz hitz egiten, nola eramaten ninduten kontzertuetara... nire aitak, adibidez, Kamerunera familia bisitatzera joan ginenenekoa kontatu zuen. Berri Txarrakek Kobetamendin eskainitako kontzertua izan zen orduan, eta

kultura

“Kamerunera joan ginenean lehengusuek kokoteraino amaitu zuten Berri Txarrak entzuteaz”

ezin izan nintzen joan. Gauzak hala, Kameruneko egonaldi osoa igaro nuen Berri Txarrak bozgorailuetatik jartzen, nire lehengusu-lehengusinekin. “Berriz ere Berri Txarrak, nekatuta gaude! Ez zaigu gustatzen”, esaten zidaten. Bertako musika ezberdina da, ez daude rocka entzutera ohituak.

Berri Txarrak taldearekiko zaletasuna lagunekin edo familiarekin konpartitzen duzu?

Lortu dut batzuei kutsatzea (barreak), nirekin kontzertuetara etorri direlako. Badut lagun bat taldea gogoko duena, eta lagunak egin ditut ere kontzertuetan. Baina nire betiko lagun-taldean ez zaie bereziki gustatzen. Nire amari azkenean ere gustatu izan zaio. Asko entzun du eta bizpahiru kontzertura etorri da, eta oso ondo jotzen dutela aitortu dit.

Nondik datorkizu talde honekiko zaletasuna?

Musika kontserbatorioko garaietatik datorkit zaletasuna. Nire amak kontatzen du Gatibu taldea entzuten nuela uneoro eta bat-batean Berri Txarrak entzutera pasa nintzela, duela lau urte. Diskoak erosten hasi nintzen, eta letrak irakurtzen, batez ere. Euren musika lehenagotik gustatzen zitzaidan, rocka gogoko dudalako. Baina letrak irakurtzean konturatu nintzen taldea berezia zela.

Ondoren etorri ziren zuzenekoak. Muse taldearekin batera jo zutenean ikusi nituen lehenbiziko aldiz, San Mamesen. Asko gustatu zitzaidan emanaldia, eta horren ostean iragarri zuten banatuko zirela. Sekulako pena sartu zitzaidan orduan, eta azken kontzertuak aprobetxatu behar nituela ikusi nuen. Sarrerak erosteari ekin nion, Beude birarako batez ere. Oso zaila izan zen. Durangoko kontzertura eta aretoetan eskainiko zituztenetara joan nahi nuen, eta sarrera guztiak aldi berean ateratzen ziren.

Nire lagun bat joan zen nire partez ilara egitera Kafe Antzokira, eta ni Durangora joan nintzen. Baina hiru ordu itxaroten egon arren ez nuen sarrerarik lortu. Kriston amorrua eman zidan. Sare sozialetatik galdezka hasi nintzen, norbaitek sarreraren bat soberan zuen jakiteko. Hogei pertsonari galdetu nien eta azkenean lortu nuen. Berri Txarraken managerraren etxean zegoen musikari batek sarrera bat utzi zuen nire izenean Plateruenan. Burua galdu nuen orduan. Bakar-bakarrik joan nintzen, eta orduan egin nuen topo dokumentalaren zuzendariarekin.

Berri Txarraken zein disko, abesti eta letra dituzu gogokoen?

Diskoa argi dut zein: Jaio, musika, hil. Berezia da, asko gogoko ditut bere kanta eta erritmoak. Infrasoinuak diskoa atera zutenean hurbildu nintzen gehien taldera, baina Jaio, musika, hil da, nire ustez, euren diskorik onena. Abesti gogokoena zein dudan? Kanta batzuk bereziagoak bihurtzen dira zuzenekoetan, jendea erotu egiten delako, eta giro berezia sortzen delako. Baina ni bakarrik entzuten nagoenean Oreka abestia dut gogoko, eta baita Zuri ere, letragatik, arrazismoaren gaia jorratzen duelako eta nik gai hori gertutik bizi dudalako. Berri Txarraken abesti guztiek hitz egiten dute gai sozialei buruz.

Letrak dira, beraz, taldea berezi egiten dutenak?

Hori eta euskaraz abesten dutela. Euren estiloa ere berezia da, beste rock talde batzuena baino melodikoagoa. Berri Txarrak entzuten duzunean beti errekonozitu dezakegu talde hori dela baina, aldi berean, ez dute estilo finkorik. Nik azken diskoak ditut gogokoen.

Azken kontzertuan egon zinen?

Bai, bietan (barreak). Azken kontzertu horiek baino lehen Madrilen jo zuten. Bertan egon nintzen eta gehiago gustatu zitzaidan, ez zelako melankolia edo tristurarik nabaritzen. Azken bi kontzertuak tristeagoak izan ziren, baina azkenengoan energia gehiago sumatu nuen.

Durangoko Azokara joan ginenean Gorka Urbizuri galdetu genion ea zein talde entzun genezakeen, Berri Txarrak desegin bazen. Berak erantzun zigun beste edozein talde entzuteko, eurekin ezer amaitzen ez zelako. Berri Txarrakek ateak ireki dizkit beste rock talde asko entzuteko. Liher, adibidez, asko gustatzen zait. Euskal musikarekiko jakin-mina piztu dit Berri Txarrakek. Lehen betiko taldeak entzuten nituen: Gatibu, Vendetta... mundu guztiak entzuten dituenak. Orain, deskubritu dut horren atzean musika talde asko daudela, horren ezagunak ez direnak, eta euren kontzertuetara joateko nahia piztu zait. Orain ezinezkoa da, ez zaidalako kontzertuak eserita ikustea asko gustatzen (barreak), baina pandemia amaitzean, talde berriak deskubritzera joango naiz.

kultura

Bilbora bidaiatu du Jaiotzen Nazioarteko Erakusketak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Artziniegatik kanpo ospatuko du Santxotena Museoak Nazioarteko jaiotzen erakusketaren XXII. edizioa. Deustoko EXPO Center aretoan egongo dira Jaiotzak ikusgai.

"Artziniegako Santxotena Museoan ezinezkoa zen urteroko erakusketa antolatzea" azaldu du Teresa Lafragua bildumaren arduradunak, "espazio txikia izanik, protokolo sanitarioak betetzea ezinezkoa da orain arteko kokalekuan". Horregatik erabaki zuten Artziniegatik kanpo antolatzea erakusketa. Jaiotzak Artziniegatik Bilbora eramatea lan handia suposatu duela azaldu du Lafraguak. Guztira bildumako 1.313 pieza daude Deustoko aretoan ikusgai.

Abenduaren 4an zabaldu zituen ateak Bilboko erakusketak eta urtarrilaren 31ra arte egongo da ikusgai.

Buztingintzari aitortza

Buztingintzak espazio berezitua izango du aurtengo Jaiotzen erakusketan. Buztinez egindako estatu osoko piezak bildu dituzte, buztinlariei omenaldi txiki bat egiteko asmoz.

Munduko bost kontinenteetako piezak biltzen ditu Santxotena Museoko bildumak, eta Europako garrantzitsuenetakoa da.

AINHOA COMAS
BERTSOLARIA

Astegun buruzurietako ajeak (II): Teresa

Egunean zehar lurrinez estali daiteke, baina gauek kartoi usaina daukate zapata kutxa batean bizi denean norbera. Eginbeharren oihartzuna buruan oihuka duela amaitzen du eguna Teresak, eta urtero gutxienez birritan ikusten duen hilketei buruzko YouTubeko saio bati adi begira afaldu du, azken astean ohitura duen legez. Burutik jota dago jendea gero, pentsatu du, horien aldean, txikikeria ematen du hegaluze lataren olioa harraskatik bota izanak, zuritu du bere burua. Munduaren joan-etorri azkarrak ez du guztiz anestesiatu, oraindik ezinegona sentitzeko gai da auzokidea hil arte lorategiko ipotxarekin kolpatu zuenaren istorioa jartzen duen bakoitzean. Sentitzeko gaitasun horrek pozten du. Izan ere, oso atsegin du Amelie filma.

Bideoa amaitu da eta oraindik entsalada erdia falta zaio. Udazkeneko tomateen zaporeak ez dauka isiltasunari aurre egiteko nahikoa intensidade, eta irratia piztu du segituan. Tracy Chapmanen Fast Car-en bertsio akustiko baten soinuak zirrararen antzeko zerbait eragin dio tripetan eta minutu batzuez sentitu du letxuga ez zela zelofanezkoa eta goteleak ez diola horren txarto egiten egongelako hormari. Bi gizonezkoen ahotsek eta Estatu Batuetako hauteskundeen analisiak bueltan ekarri dute bere zapata kutxara. Teresak gorroto ditu tertulianoak, eta orokorrean, irratian hitz egiten duen ia edonor. Azkar egin du harrikoa eta, gaur ere, hortzak garbitu gabe sartu da ohera.

Argia itzali baino lehen, zaintza faltagatik zimeltzen ari den mesanotxeko landareak gogorarazi dio bizirik dagoela.

Eskualdeko zenbait idazlek abiatutako ipuin-segidaren bigarren atala da hau. Datorren hamabostekarian plazaratuko da hurrengoa.

Nerea Iglesiasen *Mariage d'amour* filma, ikusgai

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Interneten plazaratu dute Nerea Iglesiasen *Mariage d'amour* film laburra. Artista laudioarrak aktore lanak egin ditu dokumental formatuko ikus-entzunezkoan, Xabi Madinarekin batera. Horrez gain, soinu banda konposatzeaz ere arduratu da.

"Inklusioaren indarra" du hizpide pelikulak, Maite Agirre zuzendariaren hitzetan. Iglesias eta Madinak egiten duten kale-antzerkia da lanaren ardatza, eta Kirats TeatroA Repelenteko hainbat kide ere azaltzen dira. Modu horretan, hainbat galdera plazaratzen ditu dokumentalak, Agirreren hitzetan: "Zenbat gauzak urruntzen gaituzte? Zeinek elkar gaitzake? Egin al dezakete bat egoera psikofisiko desberdineko bi pertsonaren errealitateek?".

Emanaldia ostegunean

Iragan ostegunean estreinatu zuten kale-antzerkiaren oholtzako bertsioa, Donostian. Ostegun honetan -abenduak 17-, aldiz, Galdakaon eskaini dute, Torrezabal kultur etxean. Sormene egitarauaren barruko emanaldia izan da, eta streaming bidez emititu dute.

Iglesias pozik azaldu da orain arte eginiko ibilbidearekin, eta datorren urterako asmoen berri eman du: "2021ean Aiaraldean zein Euskal Herrian zehar gure lana aurkezteko aukera izatea desiratzen gaude, formatu ezberdinetan; kaleko eta oholtzako bertsioa, zein film laburra".

Solasaldiak eskaintzeari ere ekin dio artista laudioarrak. Tarragonako Unibertsitateko Dones, Música i Paisatge zikloan parte hartu zuen, besteak beste.



kultura

‘Geuretik sortuak’ kultur egitasmoa hartuko du Artziniegak 2021ean, Udalbiltzaren eskutik. Euskal Herriko 25 udalerrietan saretuko dute egitaraua. Tokian toki sortutako ipuin edo kontakizunak, antzerki obrak eta film laburrak zirkuituko herri guztietan aurkeztuko dira.

“Geuretik sortuak” ekimena eramango du Udalbiltzak Artziniegara

Durangon aurkeztu zuten egitasmoa abenduaren 3an. **Udalbiltza**

Testua **izar Mendiguren Cosgaya**

Egitasmo berria aurkeztu du Udalbiltzak: 'Geuretik sortuak'. Jabi Asurmendi lehendakariaren esanetan, kulturgileekin egindako gogoetaren ondorio da ekimena: "Kezka horretatik abiatuta hartu zuen forma proiektuak. Euskarazko sormena eta kulturaren hedapena bultzatu nahi ditugu. Euskara da proiektuaren zutabeetako bat". Kontakizunari ere eman diote garrantzia, historia kontatzeari: "Historia eta kontakizunaren alde sentikorra artea eta kulturatik jasotzen dugu. Tokian tokiko kontakizunetatik abiatuta Euskal Herrikoa sortu nahi genuen, hortik atera da 'Geuretik sortuak' izena".

25 herritan garatuko dute ekimena, tartean Artziniegan. Beka deialdia jarriko dute abian horretarako, sortzaileei plaza eskaintze aldera. "Ideia sortzaileak saretzea da, egokitzen zaien herrian 2-3 asteko egonaldia egiteko". Generoa, esperientzia eta lurraldetasuna kontuan hartuko dituzte hautaketan. Hala, herritar, erakunde eta kultur mugimenduekin harreman eta bitartekaritza lanak egingo dituzte, "sortze prozesua herri horretan egingo da".

Hiru alor

2021 amaieran aurkeztuko dute emaitza. Hiru alor jorratuko dituzte, hala ere: literatura, antzerkigintza eta zinemagintza. "Herri bakoitzean sortzaileak eleberri txiki bat, antzezlana edo film laburra sortuko du. 2021 amaieran proiektu honen bidez 4 antzezlan, eta hainbat film labur zein ipuin edo eleberri txiki sortuko dira. Kontakizun horiekin liburu oso bat egingo dugu, eta film labur guztiekin pelikula oso bat ekoitziko dugu", aurreratu du.

Artziniegan aurkeztuko dira, besteak beste, lan horiek datorren urte bukaeran, eta egileetako bat bertaratuko da tokietako bakoitzera, "eta Artziniegako istorioa beste 24 herrietan aurkeztuko da, gutxienez".

Izan ere, zirkuitua ez dute mugatu nahi, irekiak daude proposamen berrietara: "Udalbiltzarentzat eta Euskal Herriarentzat estrategikoa da", azpimarratu du lehendakariak.

"Pandemia garaian ongizaterako kultura zein hizkuntza zein garrantzitsuak diren ohartu gara", Asurmendiren ustez: "Zentzu horretan, herritarrak animatu nahiko nituzke proiektua babestera, eta euskarazko kultura eta artea kontsumitzera. Herri batentzat ezinbestekoa da bere hizkuntzaz egindako kultura areagotzea eta zabaltzea".

Zuberoako Zazpiak Bat elkartea, Errigora... elkarlan ugari abiatu ditu Udalbiltzak, "gauzak zenbat eta batuago egin, indar gehiago hartzen dute". Ekimenaren jarraipena udalbiltza.eus webgunetik egin ahalko da, baina udalen informazio kanaletan zein hedabideetan ere egongo da eskura.

USHUAIA
Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41
Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00(ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara
ILEAPAINDEGI MISTOA · HAURRAK · PERFUMERIA · OSAGARRIAK
GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETA
MARRAZTU EZAZU GABONETATIK GUSTUKOEN DUZUNA ETA SAR ZAITEZ 2021erako 6 ILE-MOZKETEN SORTA BATEN ETA OPARI BATEN ZOZKETAN.
Kontsultatu baldintzak ileapaindegian
10 urte arteko haurrentzako lehiaketa.
* Marrazkiak aurkezteko epea: urtarrilak 8
edertasuna - sauna - solarium
Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería

kultura

“Publizitatearen estrategiak erabiliz publizitatea bera kolokan jartzean datza erakusketa”

MARIO PANIEGOk (AMURRIO, 1978) *ESPACIO PUBLICITARIO (ESPACIO PÚBLICO / ESPACIO PUBLICITARIO)* ERAKUSKETA ATONDU DU BILBOKO AZKUNA ZENTROKO SARRERAN, KOMISARIO BERRIAK PROGRAMAREN BARRUAN.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Publizitateak espazio publikoan duen presentzia jorratu duzu erakusketan. Zer dela eta?

Artista moduan aurretik ere lanak egin ditut gai honen inguruan. Publizitate-espazioak jendearentzat bereganatzearen beharra jarri dut mahai gainean, esku pribatuen edota merkatuaren esku geratu ez daitezen. Gai honi buruz hainbat artistek azken urteetan egin dituzten lanak ikusi ditut, eta horien bilduma bat da erakusketa. Horrez gain, nik munduan hiru hiriburu ezagutzen ditut zeintzuetan publizitatea espazio publikotik erabat edo asko murriztu duten. Uste dut eredu interesgarriak direla hirietako espazio publikoa kudeatzeko.

Gaiari buruzko hausnarketa sustatzea da erakusketaren helburua?

Helburua sugestioa da, azken finean. Erakusketan dauden artisten lanek gaiaz pentsatzeko balio dute, eta hirietako ereduak ere interesgarriak dira. Ez dira oso ezagunak, baina niretzat oso interesgarriak dira.

Erakusketak badu beste zati bat, jendearen iritziak jaso eta partekatzeko.

Erakusketa interaktiboa da, beraz.

Bai, hainbat bide daude erakusketan sartzeko, ez da bide lineala. Eduki eta bide ezberdinak daude. Publizitatearen estrategiak erabiliz publizitatea bera kolokan jartzean datza erakusketa.

Bideoak eta argazkiak baliatu dituzu erakusketan gehienbat.

Erakusketa espazio publikoan egin nahi nuen. Ez nuen espresuki datorren publikorik nahi. Edozein herritarri arreta deitu ahal izatea nahi nuen. Horregatik kokatu dut zentroko atarian, jende guztia pasatzen delako hemendik. Niretzat interesgarriagoa da jende horren arreta berenganatzea. Gai honen inguruan interesa dutenak espresuki etorriko dira eta euren hausnarketak jada eginak izango dituzte seguru asko, baina jende gehienari ez dio kaleko publizitateak arduratzen, asko dagoela ikusi arte behintzat.

Erakusketa ez da espazio bakarrera mugatzen. Alondegiko pantaila gehienetan ere jartzen dituzte nire edukiak. Ekintza bat ere egin genuen, erakusketan agertzen den artistetako baten bidea jarraituz: Publizitaterik gabeko eguna. Eraikineko eta Bilboko pantaila batzuk zuriz jarri genituen minutu batzuetan, Black Friday egunean, inolako edukirik gabe. Espazio publikoa denona dela deritzot, eta guztion artean erabaki beharko genuke nola erabili.

Aurretik egin dituzun beste erakusketetan ere pisu handia du diskurtsoak, ezta?

“Espazio publikoa guztiona bada guztiok izan beharko genuke zer esan”

Bai. Niretzat artea beti izan da pentsatzeko tresna indartsu bat, nire burua zein mundua ezagutzeko. Nik artea aitzakia moduan erabiltzen dut errealitatea eta jendea ezagutzeko, gauza berriak ikasteko... Jakin-min handiko pertsona naiz eta horretan datza artearekin dudan harremana, ez karrera bat egitean.

Hainbat erakusketa egin dituzu nazioartean. Tokiaren arabera moldatu egiten da artearekiko dagoen pertzepzioa?

Ezberdina da, baina ez beste herrialde batzuetan bakarrik. Hemen ere, pertsona batetik bestera aldatzen da artearekiko pertzepzioa. Askotan kanpora zoazenean mikrokosmos batean sartzen zara, artearekin erlazionatutako pertsonez inguraturik zaudelako gehienetan, eta ez dakizu hiri edo herrialde horretako ikuspuntua ezagutzen ari zaren edo ez. Baina toki guztietan daude kosmos txikiak, baita Bilbon ere. Alemanian, adibidez, bi aldiz egon naiz erakusketak egiten, eta uste dut bertan artistak beste modu batean tratatzen direla; baita Frantzian edo Ingalaterran ere. Ikuspuntu ekonomikotik ogasunak beste modu batera tratatzen zaitu bertan, eta horrek zerbait esan nahi du.

COVID-19aren pandemiak eraginik izan ahal du zure sorkuntza prozesuan?

Bai, guztioi bezala. Niretzat ez dago ezberdintasun handirik bizitzaren eta artearen artean, biak elkarrekin doaz. Apirilean proiektu bat aurkeztu behar nuen, baina konfinamenduaren eraginez ekainera arte atzeratu zen. 'Noraezean' du izena eta Araban zehar kokatuta dago. Hainbat seinale jarri nituen mendietan, naturarekin zer nolako harremana dugun pentsarazteko. Pandemia baino lehen pentsatutako erakusketa izan zen, baina jende askok esan zidan oraingo egoerarekin bat egiten zuela.

“Niretzat artea beti izan da pentsatzeko tresna indartsu bat, nire burua zein mundua ezagutzeko”

Egia da pandemia latza izan dela, baina bat-batean dena gelditzeak beste perspektiba bat eman digu guztioi, une batzuetan bizitza jarri delako erdigunean. Ikusteke dago noiz arte iraungo duen perspektiba horrek.

Baduzu proiektu berririk buruan?

Estudio bat atontzen nabil, baldintza hobeagotan lan egin ahal izateko, hori da lehentasuna orain niretzat. Baditut ideia eta proiektu ugari, baina eperik ez. Gustatzen zait gauzak oso pentsatuta egitea. Kultura eta artearen munduan askotan badirudi produktuak egiten gaudela, eta hori ez dut batere gogoko. Niretzat zentzua duen zerbait egitea gustatzen zait, ez egite hutsagatik egitea.

Proiektu pertsonalak enkarguzkoen gainetik jartzen dituzu, beraz?

Enkarguak jasotzea zaila da. Etengabeko lehian egon behar duzu beste artistekin, bekak lortzeko. Ez zait sistema hori batere gustatzen, artisten artean lehia sustatzen duelako. Artisten elkarte bat sortzen ari gara une honetan. Ea horrela artearen mundua kudeatzeko beste modu bat asmatzen duzun. Elkarlana sustatu behar da lehiakortasunaren gainetik.

Bukatzeko, pertsona orori luzatu nahiko nioke erakusketara gerturatzeko eta iritzia plazaratzeko gonbita. Espazio publikoa guztiona baldin bada, guztiok izan beharko genuke zer esan, errespetuz eta gainontzekoen iritziak kontuan izanda betiere.

kultura

'Fomic' izeneko proiektua abiatu du Iñigo Arrizabalaga artista urduñarrak. “1980ko hamarkadako tebeoteka” prestatu du Urduñako Lanbide Heziketa Zentroan. 1.500 komiki ale baino gehiago bildu ditu erakusketan, zinta eta bideoekin batera.

“Gazteei 1980ko hamarkadan egiten zena erakustea da tebeotekaren helburua”

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Argazkiak, komikiak eta musika. Hiru osagai horiek ardatz hartuta sortu du 'Fomic' egitasmoa Iñigo Arrizabalaga Iturmendi komikigile eta musikariak. "Bilduma pribatua da nirea. Jende gazteari 1980ko hamarkadan egiten zena erakustea da helburua. Garai hartan istorioak kontatzeko arte handia zegoen irudien bidez, gaur egun teknologia berrien agerpenarekin galtzen ari dena", azaldu du.

Urduñako Alondegian, Amurrioko La Casona eraikinean eta Laudioko Kultura Etxean izan ditu aurrez erakusgai urteetan zehar bildutako lanak. “Komikien sekzioan, 1.500 ale baino gehiago daude. Horri bideo edota zintak gehitzen badizkiogu... atera kontuak!”. Artxibo handia badu ere, izenburu eta egileen arabera sailkatu ditu zerrendan sorkuntza piezak. “Horrez gain, irakurtzeko gunea jarri dut sarreran”, erantsi du.

Martxoan abiatu zuen erakusketen zirkuitua, Arrizabalagaren esanetan, baina COVID-19 pandemiaren ondorioz, eten egin zitzaion bidea. “Oso eskertua nago horrelako aukerak emateagatik, hala ere. Pena ematen dit teobeoteka baldintza hauetan egiteak, musika edota garagardorik gabe; baina hori da garaiotako baldintza”. Proiektu artistikoak oso indartsu edo ahul bilakatzen du sortzailea, Arrizabalagaren ustez, “berregokitu egin behar da uneoro bat, baina etorkizunean ‘Fomic’ proiektuaren baitan bestelako jarduerekin osatzea gustatuko litzaidake: kontzertuekin eta abar”.

Komikiekiko zaletasuna txikitatik datorkio: “Lehen, paperean zegoen dena. Marrazteko arazoak nituenez, komikietarako gidoiak egiten hasi nintzen marrazkilariekin”. Tebeotekaren baitan, Arrizabalagaren zenbait lan daude ikusgai; irabazitako sariak, mexikarrekin egindako elkartrukeak eta abar luze bat. Hainbat marrazki eta garaietako istorioa da, beraz, 'Fomic' proiektuarena.

kirola

DUATLOIA

Elkartasun ekimen bihurtu dute aurtengo San Silvestre Duatloia

San Silvestre Duatloiak ospe handia hartu du azken urteetan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Orozkoko Txirrindulari Elkarteak urteko azken eguneko zita aurkeztu du jada. Berrikuntzekin dator, gainera. Izan ere, COVID-19 birusak eragindako pandemiaren ondorioz, ez da ohiko duatloia izango. Abenduaren 31 arte egongo da ekarpena egiteko aukera, eta bildutako diru guztia Bizkaiko Elikagaien Bankura bideratuko dute, azaldu dutenez. "Kirol apur bat egiteaz gain, gaur egun gehien behar daurienei laguntza eskeiniko dotsezue, jasotako diru guztia Bizkaiko Elikagaie Bankuari emongo dotsegulako".

Umeek euro bateko dohaitza egingo dute, eta helduek 3 eurokoa. Dena den, ekarpenak egiteko modua ere ireki dute antolatzaileek. Internet bidez eman behar da izena. Horrenbestez, abenduaren 31n ez da lasterketarik ospatuko Orozkon. Dena den, herritarrei ekimenarekin bat egiteko deia luzatu diete.

"La Orozko" proba

Duatloia ez da izango abenduan Orozkon egingo den kirol jarduera bakarra. "La Orozko" lasterketa ere egingo dute, birtualki. Abenduaren 27an jarri dute zita, 18:30ean.

17 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek bizikleta estatikoan, 450 metroko desnibelarekin. Ciclismo Bkool aplikazioa deskargatu beharko dute horretarako, eta euren bizikletako arrabolarentzako segida sentsorea edo potentziometroa lotu.

Probaren orduan Orozkokriterium.com atarian sartu beharko dira, eta bideoz osatutako ibilbide bat jarraitu ahalko dute bertatik. "Ez du inor epel utziko, inguruko paisaiak ikusgarriak baitira", jakinarazi dute antolatzaileek.

Profesionalekin lehian

Parte hartzaileak ez dira bakarrik egongo, txirrindulari profesionalekin neurtzeko aukera izango baitute. Kirolari hauek batuko dira probara: Astana taldeko Omar Fraile, Rural Kutxako Jon Aberasturi eta Jonathan Lastra, Euskadi Fundazioko Gotzon Martin eta Txomin Juaristi eta Burgos-BHko Jesus Ezkerra. Hizlari lanak, aldiz, Juan Mari Guajardok egingo ditu.

PILOTA

Master Cupeko finalaren atarian geratu da Alday

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Finalaren atarian geratu da Gentzane Aldai pilotari orozkoarra, Emakume Master Cup txapelketaren binakako edizioan. Olatz Arrizabalaga izan zuen bidelagun finalaurrekoetan, baina Amaia Aldai eta Oihana Orbegozok aurre hartu zieten markagailuan (12-22). Gauzak hala, eurak izango dira finala jokatuko dutenak.

Derioko frontoian izan ziren finalerdiak abenduaren 6an. Emakume Master Cupeko kideek sare sozialetan azaldu dutenez, "kuraia handiko" partidak izan ziren. Izan ere, pilotariek ez zituzten baldintzak alde izan finalerdietan, "hotz handia egiten zuen pilotalekuan, eta osasun larrialdiko neurrien ondorioz pilotariek ez dute azken asteetan nahi izango zuketen jarraikortasuna izan".

Hala, irabazteko grinez zelairatu ziren kirolariak, eta "ikuskizun polita eskaini zuten, nahiz eta jokalari gehienei frontoian euren lekua topatzea kostatu".

Orekatua eta lehiatua izan zen Gentzane Aldai eta Olatz Arrizabalagaren partida hasieran, "eta erabat urdina bigarren zatia". Horren adierazle da partidaren lehen zatian markagailua "oso estu" joan izana, hamabinako berdinketara arte. Ondoren, ordea, Amaia Aldai eta Oihana Orbegozo nagusitu ziren, eta beraiek lortu zuten abenduaren 20an Arrigorriagan jokatuko den finalerako txartela.

kirola

Bitorikako Kantera, Aiaraldeko eskalada es



Gorabehera ugari bizi izan ditu Bitorikako Kanterak azken lau hamarkadetan. 1974an erabili ziren bertan eskalada teknikak lehen aldiz, eta orduz geroztik makina bat eskalatzaileren eskola bilakatu da.

Testua **Joxe Blanco Gomez**

Gure eskualdeko zenbait lekutan eskalada praktikatzeko aukera egon arren (Gorobelen, Itxinan...), Areta eta Laudio artean kokatuta dagoen kareharrizko horma txiki eta diskretu honek aukera ematen du kirol honetan modu eroso eta seguruan jarduteko.

Laudioko zein inguruetakoko mendizale asko trebatu izan dira Bitorikako plaka etzanetan, helburu handiago eta urrunagoetara jo baino lehen. Entrenamendurako ere oso leku egokia da, rokodromo natural baten modukoa baita, bere hurbiltasunagatik eta eskaintzen duen eskalada motarengatik: heldu leku gutxiko eta guztiz bertikala ez den horma batean gora doaz eskalada bideak, itsaskortasun teknika garatzeko ezin hobeak. Ondorioz, gehienak zailtasun baxu eta ertaineko bideak badira ere, ez da eskalada erraza kanteran topatuko duguna. Ezaugarri horiek guztiek xarma berezia ematen diote txoko xume honi, bat baino gehiago ustekabean harrapatuko dituena.

Historia apur bat

Dakigunez, 1974. urtean erabili ziren lehenbizikoz eskalada teknikak Bitorikan, ez kirol helburuarekin, baizik eta herriguneko leku estrategikoan dagoela aprobetxatuz, oraindik debekatuta zegoen ikurriña horman margotzeko.

Bide gehienak zailtasun baxu edo ertainekoak diren arren, kanteran egiten dena ez da eskalada erraza

1980. hamarkadaren hasieran eskalada praktikatzen hasi zela esan daiteke, Goikogane Mendi Taldearen inguruan zebiltzan gazteen eskutik. Hasieran soka barik edota material eskasarekin, liburuetan ikusitakoa praktikara eramaten saiatzen ziren gazte grinatsuak.

1984. urtean kokatzen da lehenengo eskalada bideen egokitzea, hau da, segurtasun ainguratzeak erabili, rappelak egiteko hornikuntza... Goikoganeko gazte kementsu horiei Joseba

Harrobiko bide guztiak

1- RAIMON I (4b) / Raimon
2- RAIMON II (4b) / Raimon
3- DIRECTA (4b) / J. Albizua-...
4- VIA DEL ARBUSTO (4b) / J. Albizua-...
5- TELA MARINERA (4c) / Bidaurrazaga-...
ESCALERA (4b) / J. Albizua-...
6- TXAPAS (5a) / Abel
7- IRREPETIBLE (5b) / Sabino- J. Egia-
8- ARTADIA (5b)
9- APURTU HATZAMARRAK (5c) / Sabino- J. Egia
10- ROJA I (5b) / Abel-Txema
11- ROJA II (5b) / Abel-Txema
12- TONI 5a
13- LA PANZA (5c)
14- PEPE TXORRERAS (5b) / Sabino-J.Egia
15- JOSEBA (5a)
16- TXELIS (5a)
17- TXATARRAS (4c) /Abel
18- EL TETXO (5c) / Sabino-J.Egia-...
19- FISURA (5b) / Sabino-J.Egia-...
20- VARIANTE (5b) / Raimon
21- OIER (5c) /Miguel
GALLETAZO PAL MAJO-MURCIELAGOS (5b/A1; 6c) / Abel
22- PATXI (6a) / Miguel
23- VICTOR B (6b) / Miguel
24- MOLE (6b+) / Miguel
25- KIKIRIKI (6b) / Sabino-J.Egia
26- VICTOR A. (6b+) / Miguel
27- IKURRIÑA (6a) /Abel
28- AITOR (Ezk: 6a - Esk.: 6a+)
29- AMNISTIA(7a)
30- AMNISTIA OSOA (7a)
31- JON (5c) /Miguel
32- GONTZAL (5c)
33- BIRIBAI(5c)/Miguel
34- AMAIA(5c)/Miguel
35- IKER (5c) /Miguel
36- SOLO OTRA VEZ (5b) / Pirrakas
37- UHINAK (5b) / Abel-Joxe
38- PARAISO INHABITADO (A1) / Abel
ESKUTOKIA

Albizua gehitu zitzaien, Amurrioko Gurutze Gorriko erreskate taldeko kidea, eta erreskaterako teknikak lantzeko asmoz, zenbait bide egokitu zituzten 1984-85. urteetan. Gazte horien artean zeunden, Bidaurrazaga, F. Mugurutza, J. Hidalgo, T. Mugurutza eta enparauak, Bitorikan ikasitakoa Euskal Herriko eta munduko mendietan lagun izango zutena. Eurek piztu zuten eskaladaren txinparta Laudioko mendizale ipurterreenen artean.

Lekukoa Abel Arroyok hartuko zien eta, 1986-87-88. urteetan, 6 bide zabaldu zituen, bakarka gehienak eta hainbat teknika uztartuz. Arroyoren ekinak jende berria erakarri zuen, eta urte horietan hanbait bide zabaldu ziren Goikogane Mendi Taldetik zetozen Sabino, Egia eta beste batzuen eskutik, Bitorikan 5. gradutik gorako zailtasunak aurreneko aldiz proposatuz.

1974. urtean erabili ziren eskalada teknikak lehenbiziko aldiz horman, garai hartan oraindik debekatuta zegoen ikurriña marrazteko

Laudioko skuatean sortutako Txustarra mendi kolektiboak eskalada ikastaroa antolatu zuen 1991. urtean, eta aurreneko praktikak Kanteran gauzatu zituen. Picu Urrielluko gaina jotzea lortu zuten ikastaro honetan parte hartu zuten gehienek; hainbat neska egon ziren horien artean. Kolektibo honen partaideak izan ziren Jose Angel Hilera "Pi" eta Alfredo Hernandez, arroka eskaladan ibilbide oparoa egingo zuten eskalatzaileak.

1990. hamarkadaren erdialdean, Bitorikako eskalda eskola betiko markatuko zuen eskuhartzea gertatu zen. Bizkaiko Goi Mendi Eskolako Miguel izeneko eskalatzaileak, diru iturria bilatu eta Kanterako bide guztiak berregokitzeari ekin zion, daratuluz sartutako kankamo kimikoak (segurtasun ainguraketak) erabilita; ez zen horretara bakarrik mugatu, bide berri sorta handia zabaldu baitzuen. Ekimenak askotariko iritziak sortu zituen bertako eskalatzaileen artean. Batzuek ondo ikusi zuten Miguelen lana, eskalada eskolaren segurtasuna hobetu eta modernizatu zuelako. Beste batzuek, kontrara, hormaren aukera gehienak agortzea leporatu zioten, tokiko ekimenari bidea itxiz. Hainbatek ez zuten begi onez ikusi kanpotar batek jatorrizko bideak ezabatzen zituzten marra zuzen eta logikarik gabeak zabaltzea daratulu motordunaren laguntzaz (kanteran ikusi gabeko tramankulua). Argi dagoena da, eskaltzaile honen lanari esker, gunearen segurtasuna egokia izan dela ia 3 hamarkadetan zehar, eta horrek lagundu du eskalada eskola bezala mantentzen. Izan ere, geroztik, norbanakoen ekarpen bakanen bat sabuetsita, ez da antzerako esku hartzerik egin.

1990. hamarkadaren erdialdean berregokitu ziren harrobiko bide guztiak

Bitartean, azken hilabeteetan pandemiak sortutako mugikortasun eragozpenak aprobetxatuta, Laudioko eskalatzaile beterano talde bat buru-belarri dabil segurtasun sarea ikuskatu eta zaharberritzen, eskalada bideen kokapena eta zailtasuna eguneratuz.

Aldarrikapenerako lekua

Bitorikako harrobia leku estrategikoan dago, Aretatik etorrita Laudioko herrigunea hegoalderuntz zabaltzen hasten den lekuan, hain zuzen ere. Horrek herriari begirako balkoi izaera ematen dio, eta maiz hainbat aldarrikapen zabaltzeko erabilia izan da. Franco diktadorea hil baino urtebete lehenago margortutako ikurrinarena izan zen aurreneko ekimena. Aparteko istorioa merezi duen ekintza honek oihartzun zabala izan zuen, eta egileen identitatearen inguruan sortutako esamesak ez dira agortu urteen poderioz. Ekimenaren ikusgarritasuna aprobetxatuta, handik bi urtera, Movimiento Comunistako militanteek euren ikurra margotuko zuten.

Kantera margotzea tradizio bihurtu zen nonbait, eta 1990. hamarkadan amnistiaren aldeko margoteka ikusgarria egin zen, baita LAB sindikatuarena

kirola

ere. Margoketek eztabaida sortzen zuten eskalatzaileen artean. Batzuek ekintzeen prestaketetan parte hartzen zuten eta beste batzuek kritikatu egiten zituzten, eskalada gunea kaltetzen zelako.

Margoketez gain, aldiro, pankarta erraldoiak eskegitzeko erabilia izan da pareta, egileek, gehienetan, bertan utzi izanaren alde txarrarekin, zabor pilaketa handiak sortzen direlako.

Aldarrikapenei dagokienean, azken kapitulua Ertzaintzaren talde batek gauzatutakoa izan zen. Hogei urte baino gehiago zeraman amnistiaren aldeko margoketa ezabatzeko operatiboa egin zuen polizia autonomikoak, eta margoketa zentsuratzeaz gainera, hainbat segurtasun azpiegitura kaltetuta utzi zituzten nahita, eskalatzaileen integritate fisikoa bermatzen zuten ainguraketa sistemari eraso eginda.

Herriko txoko kuttuna

Alpitxu mendiko magalean kokatuta dago Bitorikako Kantera, Areta-Laudio errepide nagusiaren alboan. Herriko lantegi nagusiez (Guardian eta Vidrala), harrobi zaharraz eta argindar dorrez ingururatuta egon arren, xarma handiko txokoa dugu. Herrigunera eta inguruko mendigune nagusietara (Gorbeia, Arrola eta Gorobel) begirako balkoia da harrobiko tontorra, ikuspegi kutun bezain ederra eskeitzen duena. Azken urteetan herriko gazteek lekuaren izaera hurbila eta bakartia aprobetxatuz, txoko diskretu gisara erabiltzen dute. Paisaiaz gain, garrantzizko naturgunea dugu, artadi kantauriarraren orban nimiño baina esanguratsua dagoelako bertan, Laudioko lurraldeko berezko landaretza duen tokiko basoa, peto-petoa.

Bidezkoa litzateke erakunde publikoei eskatzea ezaugarri horiez guztiez eta aisialdirako dituen aukerez jabetzeko. Hau izan daiteke bidea: plana abiatzea ingurunea egokitzeko jarduerak arautzeko eta jasaten dituen kalteak leuntzeko (zaborrak, kontrolatu gabeko abeltzaintza...). Horrela, Laudioko eta eskualdeko naturgune bezala duen balioa nabarmenduko litzateke.



Garai eta belaunaldi ezberdinetako Kanterako irudiak. **Joxe Blanco Gomez**

“Ganorazko bideen krokisa egitea dugu xede”

ABEL ARROYO ASTARLOA (Laudio 1967), eskarmentu handiko mendizale eta espeleologoa izateaz gain, Bitorikako eskaladaguneari ekarpen zabalena egin dion pertsona da. 34 urte igaro dira bere lehenengo eskalada bidea zabaldu zuenetik eta gaur egun oraindik erraz topatuko dugu bertan egokitzapenen bat egiten, segurtasuna hobetzeko lanetan.

Noiz hasi zinen harrobira etortzen?

Lagun batek hitz egin zidan Bitorikan eskalatzeko aukeraz eta 1985. urteko uda aldean bertaratu nintzen bakarrik eta nire material eskasarekin. Kasualitatez, han zeuden Goikogane taldeko gazte batzuk, Hidalgo, Mugurutza, Egia, besteak beste, eta arratsaldea eskalatzen eman genuen.

Eskalada bide zenbait zabaldu dituzu, hainbat estiloetakoak gainera.

Bai, lehenengo biak Txemarekin zabaldu nituen (Roja I eta Roja II) Gainerakoak (“Txapas”, “Txatarras”,”Murcielagos”, “Ikurriña” eta “Paraiso inhabitado” bakarka eta behe aldetik hasita, “azkazalak”, iltzeak eta abarren laguntzarekin. Behin baino gehiagotan eroriko gogoangarriren bat izan nuen. Berriki, Joxe ta biok bide berria zabaldu dugu: “Uhinak”.

Eskalada bideak ekipatzeko brikolaje nahiko erabili zenuen. Baina, horretaz gain, erosi beharreko material asko erabili behar izan duzu. Inoiz dirulaguntzarik jaso al duzu?

Behin Goikogane Mendi Taldeak materiala erosteko 3.000 mila pezeta eman zigun, oker ez banago. Baina gainerakoa gure patriketatik atera da beti.

Agian zure ekarpenik ospetsuena, oraindik orain eskalatzailei izerdia botarazten dien “Murcielagos” deritzon bidea da. Zuk, aldiz, beste izen bat ipini zenion.

Hasieran, “Galletazo” izenarekin batailatu nuen, zabaltzean izan nuen erorikoa gogoan. Baina gerora, “Murcielagos” deitura hartu zuen, bidearen heldulekuetako batean saguzarrak izkutatzen zirelako.

Bide honetan, burdinezko urtutu bat erabili nuen aseguru moduan, pentsa!

Zure ikuspuntutik, hasi zinenetik zertan aldatu da harrobia?

Tira, lekua berez ez da asko aldatu. Bai, orain bide asko daude eta segurtasunaren aldetik, nahiko ondo hornituta dago. Jendea eta eskalatzeko era da aldatu dena. Kirol eskaladaren jarrera nagusi da eta lehengo abentura kutsua galdu du.

Egun, abentura mozorroa da eta atzean kontsumoaren kultura dago, beti presaka... Jendea eskalatzera dator baina askotan ez du zuzen jokatzen, zaborrak uzten ditu, ainguraketak aldatzen ditu...

Azken hilabetetan zaharberritze lanetan ari zarete.

Bai, “karkamal” nostalgiko hirukotea elkartu gara (Alfredo, Joxe eta hirurok) eta baliabide gutxirekin, lan txukuna ari gara egiten. Instalazio guztiak ikuskatu eta berritzeaz gainera, ganorazko bideen krokisa behingoz egitea dugu xede.

Bideak zerrendatu, zailtasuna egokitu eta markatzearen ondorioa izango da. Lan hau aprobetxatu nahi izan dugu, eskualdeko mendizale desagertuei gorazarre egiteko eta izenik ez zuten eskalada bideei, eurenak ipiniko dizkiegu.

herriko plaza

Leire

Zorionak izeko!! Primerako eguna opa dizut. Mila esker beti hor egoteagatik. Asko Maite zaitut. Paaaaatxu bat!

Zure printzipea

Maider

Jada ez du balio aitzakiatzat jartzea 27 urte dituzula gaztea zarela esateko. Zorionak zure lagun turuten partez!

Lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urtarrilean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

			2		3	8		
2		8	5			7		6
5				6		9		
3			6	4			8	7
		6		9		4		2
	2	5	7					
6				5		2		4
	7	4					5	3
9				3	4			8

ZAILA

			9		2			
		8					7	5
3			4			9		
		5		8	3			
	7							
6	1		2					
		1			7		6	4
			8			3		
			6				9	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Garaje Yas

Audi Service SEAT

Iritxusi, 1 - Amurrio
Tel.: 945 890 334
www.garajeyas.net

Golf VII-aren azken unitateak 15.700€-tik aurrera

Indarrean dauden kanpainei lotutako prezioa

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

GERRAK

Idazleak: Leire Bilbao eta Maite Mutiberria
Editoriala: Pamiela
Gerrak existitu egiten dira eta haur asko murgilduta daude gerra hauetan. Haurrentzako pentsatua dagoen ipuin honek, gerraren testuingurura egiten du salto. Ipuin tristea den arren, haurrekin lantzeko garrantzitsua da, munduan beste haur batzuekiko enpatia garatuko dutelarik.



MOMO

Idazlea: Michael Ende
Adina: 12 urtetik gora
Momo entzuten dakien haurra da, enpatiaz betea. Baina denboraren gizon gris maltzurrak, pertsonei denbora kentzen ari die, eta Momok jadanik ez dauka nor entzun, ez dauka norekin jolastu... Horregatik, denboraren gizon hauen kontra, abentura ederra abiatzen du.

JOLAS GUNEA

GABON KANTAK

Gabonak datoz, eta Euskal Herrian oso ohikoa da garai honetan abestea. Antzina kantu eskean ere ibiltzen ziren.

Bi gabon abesti aurkezten dizkizuegu. Tonua aski ezaguna izango zaizue, baina letra moldatua dago. Gabonetan abestu nahi izanez gero, erlijo katolikotik kanpo ere abestu ahal izateko.

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Negua heldu dela
lasterka etorri da
berria ematera.

Horra! Horra!
Gure Olentzero!
Pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxuakin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Olentzero buru handia
Entendimenduz jantzia,
bart arratzean edan omen du
10 arroako zagia
Ay urde tripa handia
tralaralala tralaralala

MARIDOMINGI

Horra MariDomingi begira Horri
Gorbeiako basoan saltoka dabil
Zurekin nahi badugu ondo ibili
Neguko arropa bila dezagun arin

Hatoz, Hatoz zapia buruan jarri,
Hatoz, Hatoz, gona soinean jarri,
Hatoz goazen eta jolas dezagun
basoko lagun eta animaliekin

Irrintzi eta poza algararekin
Hori behar dinagu guk elkarrekin
Maitasuna banatuaz lagunei
Bidea zabalduz guk amesteari

Hatoz, Hatoz zapia buruan jarri,
Hatoz, Hatoz, gona soinean jarri,
Hatoz goazen eta jolas dezagun
basoko lagun eta animaliekin

KOKO RIKO

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Gabonak

Urteko gaurik luzeenak datoz, suak argitzen dizkigu gau ilunak. Gabon egunaren ostean, eguna gauari tartea irabazten joango zaio.

Betidanik izan da garai berezia. Aspaldi enbor handi bat moztu egiten zen eta sura botatzen zen, argitasuna emateko gaurik luzeenei.

Gabon garaia berezia da haur eta gazteentzako, oporrak hartzen dituzte eta hain maitatuak diren Olentzero eta MariDomingiren bisitak jasotzen dituztelako. Mitologiako bi pertsonaia hauek euskara eta euskal kulturaren zaindari bilakatu dira azken urteotan.

MariDomingi eta Olentzero bakoitza bere etxean bizi da, baserrian. Hotzari aurre egiteko, biek ikatza egiten dute, eta gabon garaian etxeetatik banatu. MariDomingi, horrez gain, abeltzaina ere bada, animaliak gobernatu egiten ditu egunero eta Amalurraren zaindari ere bada. Ez da Olentzeroren bikotea, ezta laguntzailea ere. Olentzeroren laguna da, baina aparteko bizitza duen pertsonaia da.

Gabonetako bi pertsonaia hauek beraz, kontsumismo basatitik harago, badute gure kulturan, Amalurrean eta baita hizkuntzan ere paper garrantzitsu bat.

Kendu diezaiegun Olentzero eta MariDomingiri kontsumoaren mamua; horrela, utziko diote gurea ez den Santa Clausen itxura hartzeari, eta euskal mitologiaren zaindari izatera pasatuko dira.

Begira!

Horra katua neguari begira. Osatu lauki zuriak BEGIRA hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, G, I, R eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

B		I	G		R
R			A		
		G			
			R		
		A			
G		R	B		A



Puzzlea

Puzzle hau osatzeko bederatzi pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?

SOLUZIOAK

2021
matrikulazio epea zabalik

DRUMGORRI MUSIKA ESKOLA

Ukelelea
Bateria
Pianoa
Gitarra
Baxua
Kantu klasea

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan · 699 88 35 63

Kontra

Aiaraldetik mundura

Mariano Mantel

Jose Miguel Campo

JAIOTERRIA
LAUDIO (1983)

BIZILEKUA
SUITZA

BIDAIAREN ZERGATIA
LANA

“Suitzan ez digute konfinamendurik ezarri COVID-19aren pandemiari aurre egiteko”

Noiztik zabiltza Suitzan bizitzen? Zer dela eta joan zinen bertara bizitzera?

Badira 5 urte eta erdi hemen bizi naizela. Laudion bizi nintzen, eta nire lana medio, herrialdea ezagutzen nuen jada.

Gauzak hala, bertan lan egiteko aukera proposatu zidatenean, bizitzera etortzea erabaki nuen.

Oso ezberdina da bertako bizitza Laudiokoarekin alderatuz? Zertan?

Nire kasuan Laudio moduko herri batetan bizi naiz, eta egunerako bizitza oso antzekoa da. Ezberdintasunak lanetik kanpo egiten diren lagunarteko planetan agertzen dira, batez ere. Plan gehienak kanpoan egiten dira eta naturarekin erlazionaturik daude. Gutxi dira leku itxietan egiten diren jarduerak.

Harritzekoa da Suitzan naturguneak zeinen prestatuak eta zainduak dauden, ingurumenarekiko errespetua oso handia da.

Gabonei begira, zer asmo dituzu? Bertan pasako dituzu edo Laudiora etorriko zara?

Gabonak Laudion pasatzea gustatuko litzaidake. Baina, egoera horren aldakorra izanda, ezin dira bidaiak gehiegi planifikatu.

Zein da zure etorkizuneko aurreikuspena? Suitzan bizitzen jarraitzeko asmoa duzu?

Denboraldi baterako Suitzan jarraitzea da asmoa, baina bizitzak buelta asko ematen ditu, ezin jakin.

Nola eragin du COVID-19aren pandemiak bertan?

Suitzan hartutako neurriak eztabaidagai izan dira hainbat hedabideetan. Ez dute etxeko konfinamendurik ezarri eta eguneroko bizitza ahalik eta normalen mantentzen ahalegindu dira, segurtasun neurriak hartuta, noski.

Nire kasuan familia izan dut beti buruan, oso gertutik jarraitzen dut Laudioko egoera.

Bukatzeko, zeozer gaineratu nahiko zenuke?

Aiaraldear guztiei osasuna opa nahiko nieke, gabon zoriontsuak pasa eta urte berri on! *Joyeux Noël et Bonne Année*!

SUITZA

DESKRIBAPENA
Historian zehar mantendu duen neultraltasun jarreragatik, hainbat jatorritako pertsonak joan dira bertara bizitzera. Gaur egun kultur aniztasun handiena duen Europako herrialdea da. Munduko herrialde garatuenetako bat da, eta nazioarteko hainbat erakundek bertan dute egoitza.

AZALERA
41.277 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
8,5 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Alemana, frantsesa, italiera eta romantxea.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · URDUÑA ORDUÑA · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

Grafik
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan · Basalarrina euskal Topagunea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila